

Koperatibak etorkizunari aurre egin nahian

Arrasateko Taldeak Kooperatiba Korporazio bilakatzea erabaki du III Kongresuan

Arrasateko enpresa kooperatiba taldeak Korporazio bilakatzea erabaki zuen ostiralean bukatu zuen III Kongresuan. Horrek taldeko enpresa guztien egitura eta antolamenduan aldaketa ekarriko du, Europako Merkatu Bateratuaren erronkaren aurrean kooperatiba taldearen eraginkortasuna sendotzeko eta ekonomi garapena bideratzeko helburuz.


J. AIARZA / DONOSTIA

Arrasateko kooperatibak orain arte eskualdeko antolaturik bazeuden ere, hemendik aurrera sektoreka egituratuko dira taldearen barruan. Halaber, korporazioan sortuko diren sektore taldeek erabaki ahalmena eskuratuko dute kooperatibetarik.

Berrikutza hau ostegun eta ostiralean egindako III Kongresuan erabaki zuten 100 kooperatibetako ordezkariak. Arrasateko Kooperatiba Korporazioan (AKK) 22.000 pertsonak egiten dute lan—18.400 bazkide direlarik— eta urte bukaerarako 320.000 milioiko fakturazioa lortzea espero dute. Euskal Herriko Industri talderik garrantzitsuena da, beraz, Arrasatekoa, bai langile kopuruari dagokionez eta baita fakturazio bolumenaren aldetik ere.

Arrasateko Kooperatiba Korporazioa hiru ardatz nagusiren inguruan egituratuko ditu bere enpresak: **Finantz Taldea**, Lan Kide Aurrezki eta Lagun Arok osatua; **Banakuntza Taldea**, Eroskiren inguruan, eta **Industri Taldea**, sektoreen arabera zazpi azpitalde izango dituen.

Korporazio honek lehendakari eta exekutibo bat izango du eta bederatzi lehendakariordetza, azken hauek zazpi industri azpitalde eta Finantz zein Banakuntza taldeei dagozkien.




BENAT AZURMENDI

✓ Arrasateko kooperatibak sektoreka egituratuko dira Korporazio barruan.

«Taldearen barruko enpresak ahalik eta eraginkorrenak izatea eta zuzendaritza bateratuagoa izatea» dira berregituraketa honen xedeak, Arrasateko kooperatibetako iturriek diotenez.

Erabaki honek enpresa kooperatiba bakoitzaren erabaki ahalmena nolabait gutxitzea ekarriko du, sektore bakoitza eta talde osoaren bateratzearen mesedetan. «Kooperatiben funtzionamendua holding baten antz handiagoa izango du, orain arte izan duen giza eta ekonomi ezaugarriarena baino» gehitu dute taldeko iturriek. Halere, kooperatiba eta sektore talde bakoitzaren funtzionamendua autonomo izaten segituko du.

INDUSTRIA, FINANTZAK ETA BANAKUNTZA AKK-ko Finantz Taldeak Lankide Aurrezki eta Lagun Aro, finantz eta babes entitateak bilduko ditu. Talde



AKKko Industri Taldeko buru den Fagorren egoitza Arrasaten.

honek ia bilioi erdi pezetako aktiboa du gaur egun.

Taldearen iharduerak hobeki aprobetxatu nahian, Kartera Elkarte bat sortuko da, taldeko eta taldez kanpoko enpresen partizipazioen jabe izango dena.

«Talde honen sorrerarekin Lan Kide Aurrezkiaren zabalkunde estrategia kanpoari begira gauzatuko da» adierazi dute Korporazioko iturriek. Izan ere, Taldeko kooperatiben finantz beharrak Lankide Aurrez-

kiaren aktiboaren % 37tik 11ra jaitsi da hamar urteetan.

Industri Taldeari dagokionez, 90 kooperatiba bilduko ditu, sektorearen arabera zazpi azpitaldetan banaturik. Fagor izena buru den Talde honek aurtengo ekitaldirako 200.000 milioi pezetako salmentak egitea aurrakusi du, horietatik 55.000 milioi esportazioetatik etorriko direnak.

Talde honen barruan, Arrasateko kooperatibak Espainian buru den

✓ Taldearen barruko enpresak ahalik eta eraginkorrenak izatea eta zuzendaritza bateratuagoa izatea» dira berregituraketa honen xedeak.

zenbait industri iharduera badira: erreminta-makina, txaparen lanterarako sistema automatikoak, linea zuriko elektragailuak, automobilgintzarako osagarriak, osagai elektromekanikoak, erdiekoaleak, zenbakizko kontrolak eta erregulazio sistemak, etxeko altzariak eta metal-eko egiturak, besteak beste.

Azkenik, Banakuntza Taldearen bilakaera Eroskik Valenciano Consum taldearekin xedatutako estrategian oinarrituko da. Estrategia hau merkatua Estatu espainiar zein Europako gainontzeko lurraldeetara (Frantzia eta Portugal batez ere) zabaltzeko ahaleginetan oinarritzen da.

Eroski-Consum partzuergoaren estrategietako bat, Espainian irekiko diren hipermerkatu guztien kapitalaren % 51 eskuratzea da.

Ekitaldi horretarako, Talde honek 120.000 milioi pezetako fakturazioa izango duela aurrakusten da eta 1995ean, planak betez gero, 400.000 milioira iritsi daitezkeela uste dute AKK-koek, 9.000 lanpostu berri sortzeaz gainera.

TALDEAREN OINARRIZKO ESTRATEGIAK Arrasateko Korporazio Kooperatiboarentzat hainbat estrategia zehaztu eta onartu zituzten kongresuan. Oinarrizko estrategiak negozio berriak eta enplegua sortu, kooperatiben ihardueraren nazioartera zabaltzea, enpresen konpetibitatea hobetu eta kooperatiben eredura Europako Komunitatera zabaltzea dira.

Bestalde, Kongresuak 'MCC Inversiones' (AKK inbertsioak) kartera elkartearen sorrera ere baimendu zuen. Honen eginkizuna korporazioaren garapena bideratzea da, merkatal, teknologiko edo beste era bateko sinergiak ekar litzaketan kapital elkartean partizipazioak eskuratzearen bidez. Korporazioak estrategikotzat jotzen dituen sektoreetan sartuko litzateke kartera elkartea hori.



Bergarako Udalak lehiaketa-oposizio bidez **Euskara Sailko Teknikari bat** kontratatu behar du denboraldi baterako.

Izangaien Baldintzak:

- ★ Adinez nagusia izatea.
- ★ Erdi mailako karrerako edo parekide den tituluren baten jabe izatea.
- ★ Euskara, ahozkoa nahiz idatzizkoa, ondo menperatzea.

Instantziak:

Instantziak aurkezteko epea 1992ko urtarrilaren 11ko ordubatak arte.

Frogak:

Lehenengo frogak 1992ko urtarrilaren 27an, goizeko 10etan Udaletxean egingo da.

Baseak:

Baseak eta informazioa gehigarria Idazkaritzako bulegoetan.




ANDOAINGO UDALA

BITARTEKO FUNTZIONARI GISA, KONTZUMITZAILEEN INFORMAZIOERAKO UDAL BULEGOKO ARDURADUNAREN KONTRATAZIOA

- Helburua: Bitarteko funtzionari gisa, Kontsumitzaileen Informazioerako udal Bulegoko Arduradunaren kontratazioa egitea.
- Eskaerak aurkezteko epea 10 egunetakoa izango da, lanpostuaren deialdiaren iragarkia prentsan eta Udaletxeko Iragarki Taulan jendaurreratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasirik.
- Informazioa: Langilegoaren Negoziatuan emango da Udaleko bulego - ordutan.

Andoain, 1991ko abenduak 20.

LANBROA



kafetegi edaritegia

konstituzio plaza 5
t.42 19 58
DONOSTIA